

BERRI OROKORRAK

2018ko irailaren 14an 1. zenbakia

Euskaraz Bizi!!!!

Guraso eskolak.

Aurten ere, udalaren laguntzaz, gurasoentzako euskara ikasteko klaseak martxan jarriko ditugu. Klaseak, Etumeta Euskaltegian izango dira eta bertako AEK-ko irakasleek emango dituzte. Klaseek honelako bereizgarriak izango dituzte:

- Astean 2 egunekoak izango dira.
- Egunean 2 ordukoak.
- Arratsaldez izango dira.
- 100 orduko ikastaroa izango da urritik maiatzera.
- 100 € ordainduko da ikastaroa.
- 2-12 urteko haurren gurasoek izango dute lehentasuna.
- Urriaren 16an hasiko dira klaseak.
- Izena emateko azken eguna, urriaren 5a izango da.
- Mailaketa frogatzen da: urriaren 10a, Euskaltegian izango da 14:30etik 16:30era
- Klaseen % 80a etoriz gero, matrikularen %100eko diru-laguntza emango du Udalak, ikasturte amaieran (Beti ere, Udalaren diru-laguntza deialdiaren arabera).

Izen-emate orria guraso-bileretan edo idazkaritzan jaso dezakezue. Bete ondoren, ikastolako idazkaritzan edo Etumeta-AEK euskaltegian utzi behar duzue.

1.-2018/19 ikasturteari ongi etorria.

Familia agurgarria!

Oporaldia amaituta, erronkaz beteriko ikasturtea hasi dugu!

Ongi etorri, bada, eta aurrera!

2.-2018/19 ikasturteko zerbitzuak eta kuotak.

Ikasturte honetako ikastolako eta zerbitzuetako kuotak jarraian adierazten dizkizuegu. Horien kobrantza **hilaren 16an** egiten da.

* Kooperatibako kuota osagarria eta elkartasun kutxa.

Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkarteak 2018ko maiatzaren 31n eginiko Batzar Orokorrean onartutakoari jarraituz, 2018/19 ikasturtean Kooperatibako kuota osagarria hileko eta ikasleko **38,00 €** izango da. Elkartasun kutxa, 4,10 € hileko eta familiako. Kuota horiek **12 hilabetez (iraila-abuztua)** kobratzen dira.

* Ikasle-asegurua.

Ikaslearen istripu-asegurua urteko kuota **15,20 eurokoa** izango da.

*Garraioa.

Ikasturte hasierako txostenean zerbitzuaren kostua 71,20€koa izango zela adierazi bazen ere, negoziaketak medio, hileko kuota **69,00 eurokoa** (12 hilabetez) izango da. Arduradunak Mari Berasaluze eta Izaskun Huizi izango dira.

Kontuan hartu, kuota erabiltzaile kopuruaren arabera kalkulatzen dela eta erabiltzaile kopurua aldatuko balitz kuotak ere gorabehera jasango lukeela.

*Irailako arratsaldeetako zaintza.

Irailan, eskolak goizez direnen egunetan, 14:30etik 16:30era zaintza eskaintzen da. Zerbitzuaren kostua **40,00 eurokoa** da eta irailaren 16an egingo da kobrantza errezibo bidez. Begiraleak Idoia Encinas eta

Zuriñe Lasarte izango dira.

***Goizeko zaintza.**

Goizeko 8:00etatik 9:00etara da zerbitzua. Kuota **16,00 euro hileko** izango da **10 hilabetez**. Bermea ere 16,00 eurokoa izango da eta irailaren 16an kobratuko da. Ikasturtean zehar zerbitzuan baja emanez gero, bermea galdu egingo da. Begiraleak Idoia Encinas, Zuriñe Lasarte eta Iban Maritxalar.

***Jangela.**

Iraileko begiraleak eta taldeen arduradunak honakoak dira:

-HH: Mari Karmen Matxain eta Susana Martin.

-LH1: Idoia Kaperotxipi.

-LH2, 3, 4, 5, 6 eta DBH: Adela Castuera, Itzalai Pikabea eta Iban Maritxalar (oraindik hastear).

Bazkaldar kopurua handitu ahala, begirale berriak hasiko dira eta horien berri hurrengo buletineta jasoko duzue.

Sukaldaria: Amaia Ullate.

Sukaldari laguntzailea: Nekane Aisa.

Jangelako kuota, bazkaldar-kopurua eta jangelaren erabileraren arabera kalkulatzeko denez, garrantzitsua da zerbitzua erabili behar dutenen **izen-ematea irailaren 21a baino lehen** egitea. Kuota-mota desberdinen artean aukeratu dezakezue:

- Egun solteak, hilabete solteak, urritik maiatzera asteko bost egunetan, urritik maiatzera astean 4 egunetan (egunak beti berdinak izan behar dute).

Datuak jaso ondoren, kuotak zenbatekoak izango diren jakinaraziko zaizue.

Gogorazi nahi dizuegu **zerbitzua erabili ahal izateko, bezperan idazkaritzan jakinarazi behar dela 13:00ak baino lehen.**

Menuen deskontua: urria eta maiatza bitarte egingo da eta onuradun izateko, **bezperan 13:00ak baino lehen idatziz jakinarazi beharko da** usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz.

3.-Gela-buruak.

Duela bi ikasturte, Artezkaritza Kontseiluak gela-buruen antolaketan eta funtzionamenduan egindako aldaketak mantenduko dira aurtengoan ere bai. Laster hasiko diren ikasturte hasierako familia bileretan gaia aipatuko da.

Gela-buru izateko boluntarioak eskatuko direnez, lerro hauetatik animatu nahi zaituztegu zuen burua aurkezteko!

4.-2018/19 ikasturteko ikasketa-bekak.

2018/2019 ikasturterako beka eskatzeko epea **irailaren 17an irekiko da** eta **urriaren 1an** amaituko da.

2017/18 ikasturtean beka eskatu zuten familiek era telematikoa lor dezakete inprimakia osatuta. Datuak baieztatu edo beharrezkoak diren aldaketak egin ostean, sinadura digitalarekin amaitu dezakete eskaera edo, agiria inprimatu eta ikastetxera eraman eskaera hezkuntzara bideratzeko. Beti ere ordua eskatu ondoren.

Eskaera berria egiteko aukera desberdinak daude:

Ikastolan bertan. Horretarako, aurretik **hitzordua eskatu behar da** idazkaritzan.

Era telematikoa. Guraso edo tutoreak <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> helbidean. Inprimakia inprimatu eta sinatu ondoren, idazkaritzara ekarriko du ikastolak eskaera baliozta dezan. Horretarako, aipatu helbidean erregistratu egin behar dela. Gure gonbitea duzue gurasoak anima zaituzten era honetara egiten.

On-line etxetik. Aurreko aukerako pauso berdinak jarraituko dira, baina DNI elektronikoarekin sinatuko da eta zuzenean Hezkuntzan jasoko dute eskaera.

Informazio guztia www.hezkuntza.net helbidean ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagotarako idazkaritzara deitu.

5.-2018/19 ikasturteko Udarregiko beka sistema (BERRIA!!!)

Udarregi Ikastolak irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, beka sistema propioa eskainiko die urtero bere bazkideei. Artezkaritzak 2018/19 ikasturterako ikastolak izango duen beka zenbatekoaren poltsa 10.000 € izatea adostu du. Beka sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak idazkaritzan eta ikastolako webgunean jaso ahal izango dira.

Helburua:

- Seme-alabak Udarregi Ikastolan matrikulatzeko laguntzea.
- Ordaintzeko oinarriko arazoak dituzten ikastolako bazkideei laguntzea.

Diru-laguntza motak:

- Kuota murrizketa.
- Egoera berezietarakoa, kuoten %100 estalita egongo da.

Beka eskaera epea:

- Irailaren 17an irekiko da eta urriaren 1an amaituko da.

5.-Gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak, gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzak emango ditu 2018-2019 ikasturterako.

Deialdi honetaz balia daitezke Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 2018-2019 ikasturteko ikasleak, baldin eta, **2017-2018 ikasturtean**, unibertsitateaz kanpoko mailarako beketarako edo ikasketa-laguntzetarako deialdiko eskola-materialaren atalean **bekaduna izan bada**.

Eskatzaile bakoitzarentzako laguntza 200 eurokoa izango da gehienez, eta muga izango da gailu bakoitzaren fakturaren bidez justifikatutako diru-kopurua.

Eskabidea nahitaezkoa izango da, eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera egingo da: www.euskadi.eus/dirulaguntza/2018/dispositivos-digitales/y22-izapide/eu/ agindu honen I. eranskinean jasota dago eskabide-eredua.

Behin **eskabidea beteta**, inprimatu egin behar da, eta, balio osoa izan dezan, ikasle eskatzaileak eta haren aitak, amak edo legezko tutoreak izenpetu behar dute.

Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

Eskabidea inprimatu eta sinatu ondoren, ikaslearen **ikastetxeko idazkaritzan** aurkeztuko da **irailaren 21a baino lehen**, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatutako bulegoetan, hilabeteko epean, agindu hau EHAA-n argitaratu eta biharamunetik aurrera.

6.-Atletismen izena eman duten ikasleen gurasoekin bilera.

Irailaren 18an, asteartea, arratsaldeko **17:00etan DBHko eraikinean**, atletismoan izena eman duten ikasleen gurasoekin bilera egingo da, informazioa eman eta zalantzak argitzeko.

7.-Baxurde-krossa.

Igande honetan 10:30ean Baxurde-krossa izango da, eta jarraian haurren lasterketa.

12:00etan LH 3, 4, 5 eta 6: 600 metro. Ibilbide erdia antolakuntzak bideratua eta beste erdia beraien erritmora utziko zaie antolakuntzaren begirada pean.

12:10ean: DBH 1, 2, 3 eta 4: 1000 metro. Beraien erritmora utziko zaie hasieratik, antolakuntzaren begiradapean.

Izen-ematea frontoian egin behar da lasterketa baino lehen.

8.-Klikmetroak Urretxu-Zumarragako ikastolan.

Urretxu- Zumarragako ikastolak urriaren 7rako antolatu du aurtengo Kilometroak eta dagoeneko prest dauka **Klikmetroak** egiteko aukera. Animatu zure metroarekin laguntzen. Ondoko estekan sartu eta egin zure metroa! <http://klikmetroak.kilometroak.eus/>

OHARRAK ETAPAKA



HE

1.-Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen martxoaren 17ko 30/2015 dekretuaren aldaketa.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretua aldaketak argitaratu zituen 2018ko abuztuaren 6ko EHAAn.

Aldaketa horietako bat honakoa da:

- Bigarren seme edo alabagatik laguntzak hirugarren urte batez luzatzea. 2018an bi urte betetzen dituzten bigarren seme do alabek hirugarren urterako laguntza hori eskatu ahal izango dute dekretuaren aldaketa indarrean jartzen denetik 2018ko abenduaren 31ra arte.

Informazioa: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018004066>



HH

1.-Ikasturte hasierako guraso-bilera orokorrak.

HHko guraso-bileren egutegia jakinarazi nahi dizuegu. Bilerak zuen seme-alaben gelan izango dira eta zaintza zerbitzua egongo da.

MAILA	DATA	ORDUA
HH4 eta HH5	Irailak 18, asteartea	16:30ean euskaraz

1.-Zorriak LH.

LHko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Horregatik, **ASTEBURU HONETAN, norberak bere seme-alabei ondo begiratzea eta egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

Arazo hau ezabatzeko erraza egiten ez dela jakitun, mediku batekin alderatu ditugun zorrien aurka egiteko jarraibide batzuk emango ditugu.

Zuen seme edo alabaren batek zorriak dituela ikusten baduzue:

1. Ondo begiratu familiako denei.
2. Zaindu arretaz bakoitzaren gorputz-garbitasunari dagokiona. Hala nola:
 - Orrazien garbitasuna arretaz begiratu.
 - Bakoitzak bere orrazi, eskuila, zinta, gantxo eta bestelako ile-apaingarriak izan eta erabiliko ditu.
3. Tratamendu berezia:
 - Buruko larrua zorrien aurkako lozio batez igurtzi (**KISE, ITAX,...**) eta horrela eduki 6 edo 8 orduz toalla batez estalita.
 - Oihala kendu ondoren, hildako bartzak (arrautzak) orrazi fin batekin baino, **eskuz banan bana kentzea eraginkorragoa da.**

Zazpi egun pasa ondoren tratamendua berriz egin aurrekoan bezalaxe.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIAITU DENOK ASTEBUKAERA HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.

2.-Guraso-bilerak.

LHko guraso-bileren egutegia jakinarazi nahi dizuegu. Bilerak arratsaldeko **16:30ean** izango dira euskaraz.

MAILA	EGUNA	NON
LH1	Irailak 21, ostirala	JANGELAN
LH2	Irailak 25, asteartea	
LH3	Irailak 27, osteguna	
LH4	Irailak 27, osteguna	GELAN
LH5	Irailak 26, asteazkena	JANGELAN
LH6	Irailak 24, astelehena	JANGELAN



DBH

1.-Guraso-bilerak.

DBHko guraso-bileren egutegia jakinarazi nahi dizuegu. Bilerak zuen seme-alaben gelan izango dira **17:00etan euskaraz** eta **18:00etan gaztelaniaz.**

MAILA	DATA
DBH 3 eta DBH 4	Irailak 19, ASTEAZKENA
DBH 1 eta DBH 2	Irailak 20, OSTEGUNA



Gernika Ibilbidea, 11 20170 USURBIL

Tel. 943 36 12 16 / Fax 943 36 37 43

www.udarregi.eus / usurbil@ikastola.eus

